



AITA SANTUAREN ARDURAPEKO  
EKINTZA MISIOLARIAK

HAUR  
MISIOLARIAK

[www.infanciamisionera.es](http://www.infanciamisionera.es)

JESUSEKIN EGIPTORA. ZIZTU BIZIAN!

# JeSUSEKIN Egiptora. Ziztu bizian!

Irudiaren koloreztatzea egiteko ideiak:

## 1. Hartzaileak

Sei-zazpi urteko neska-mutilak (Lehen Hezkuntzako lehen zikloa)

## 2. Edukia

Jarduera honen helburua da haurren misiolari izaera aurkitzea, beste haur baten figuraren bidez, Jesusen bidez. Haurrak ere misiolari dira, ez dirudien arren.

Funtsezkoa da haurrengan misiolari sena esnatzea, zeren eta bataiotik denok baikara misiolari. Misioak hazten baitu haiengan bizitza osoan berengan izango duten lagun hurkoarenganako maitasuna, eskuzabaltasuna, solidaritatea eta eskaintza espiritua.

## 3. Ebanjelioko erreferentziak

Katekistak edo hezitzaileak sar dezake izarrari segika doazen errege Magoen pasartea, Mateo 2, 1-12an azaltzen dena. Magoek Eskritura Santura jotzen dute Jesus aurkitzera.

## 4. Katekesirako iradokizunak

- a) Banatu irudia haurren artean eta adierazi beraiek ere badirela jada jaio den Jesusengana hurbiltzen diren haur horiek.
- b) Haurrek irudia margotu ondoren, hezitzaileari edo katekistari iradokitzen diogu egin dezala Egun horretarako proposatzen dugun "Hitzarekin topatzea".